

Hitza 21/11/2019

Antimilitarismoaz eta memoria historikoaz ariko dira Astran, bihar

-A.M.A. Gernika-Lumo
Antimilitarismoari eta memoria historikoari buruzko jardunaldiak egingo dituzte bihar, Astran; 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30ra bitartean jarri dituzte hitzorduak.

Gernika Gogoratuz, Gernikatik Mundura, Ideasur, Astra eta Gernika-Lumoko Udalak bultzatu dituzte jardunaldiak, eta denetara lau hitzaldi antolatu dituzte. Denek ala denek *Giza garapen gehiago eta arma gutxiago* leloagaz bat egingo dute.

Gernika Gogoratuz elkarteko

ek esan dutenez, industria militarrek gerran daukan eragina eta inplikazio maila zein den eta nazioarteko erakundeek gai horri buruz zer egin beharko luketen aztertuko dute.

Bi saiotan

Bitan banatuko dute biharko jardunaldia. Lehenengoa Maria Oianguren Gernika Gogoratuz elkarteko kideak zuzenduko du, eta bertan egongo dira Fernando Cruz Kolonbiako Caquetako Egiaren Batzordearen koordinatzailea eta Emerita Cuellar iker-

tzailea. Egia eta memoriaren eraikuntza landuko dute.

Kolonbiako lurraldeetako egiaz ariko da Cruz, eta Kolonbian bakea eraikitze beharrezko dimentsioa zelakoa den azalduko du. Cuellarregaz, *Sin mineria, la vida tiene futuro* izeneko dokumentala ikusiko dute. Gatazkan dauden herrialdeak proiektuaren barnean burututako ikus-entzunezkoa da, eta dokumentalaren nondik norakoak azalduko ditu adituak, bera baita Tolimako kasuaren azterketa egin duen ikertzaileetako bat.

Arratsaldeko saioan, desmilitarizazioa eta bakearen eraikuntzari helduko diote. Jokin Alberdi Gernikatik Mundurako kideak aurkeztuko du, eta beragaz egongo dira Zurifne Rodriguez Sudergintza bakerako eta gatazkarako ikerketa zentro feministako kidea eta Luis Arbide eta Argi Otsoa Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko kideak.

Euskadiko harremanak eta jendearen ikuspegia desmilitarizatzea izeneko hitzaldia zuzenduko du Rodriguezek, eta *La guerra empieza aqui* dokumentala azalduko dute Arbidek eta Otsoak.

Jardunaldiak gaztelaniaz izango dira, eta beharrezkoa da bertaratzeko baieztatzea, ondorengo posta elektronikora idatzita: info@gernikagogoratuz.org.

Silvia Agüero aktibista eta feministaren hitzaldia, gaur, Astran

-A.M.A. Gernika-Lumo
Silvia Agüero aktibista eta feministak ijitoen feminismoari buruzko hitzaldia emango du gaur, 18:30ean hasita, Astran.

Hain zuzen, ijitoen eta patriarkatuaren sistema landuko du, eta egoera arrazistei buruz hitz egingo du. Antolatzaileek herri-tarrei hitzaldia gerturatzeko deia egin diete, eta hitzaldia bukatutakoan mokadua egongo dela adierazi dute.

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

LEA-ARTIBAI. MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEKO HITZA

HITZAK bi eskualdeetan 28.000 irakurle

Eskelak 18:00ak arte hartzen ditugu
eskelak@hitza.eus / Markina-Xemein: 94-684 44 36
Gernika-Lumo: 94-627 10 85 / Bermeo: 94-618 72 99

Eskelak orain
merkeago

Tarifak (BEZ barne)

Bi modulu	1X2 (38 mm x 64 mm)	50€
Lau modulu	2X2 (82 mm x 64 mm)	100€
Sei modulu	3X2 (168 mm x 64 mm)	150€
Hamabi modulu	3X4 (168 mm x 131 mm)	300€

* harpidedunek %50 merkeago